



Laneko Osasunaren Informazio Buletina

77. alea / 2021eko azaroa

Berritasunak



Nafarroako Lan Osasunaren Kontseiluaren bilera.

Joan den urriaren 28an bildu zen Nafarroako Lan Osasunaren Kontseilua, bi helbururekin. Alde batetik, aurkeztu zen **Nafarroako Laneko Osasunaren 2017-2020ko Ekintza Planaren** esparruan garatutako jardueren balantzea. Bestetik, eztabaidatu eta zehaztu ziren **Nafarroako Laneko Osasunaren 2022-2024ko Plana** osatzen duten plan estrategikoak, bai eta **Laneko arriskuen prebentzioa enpresen kudeaketan txertatzeko programa** ere. Horiek guztiek

ezarriko dute datozen urteetan zein lan ildo estrategiko garatuko dituen NOPLOren Lan Osasunaren Zerbitzuak.

Informazio gehiago



Laneko Osasunaren Buletina, osorik euskaraz. 77. ale honetatik aurrera, laneko osasunari buruzko hileroko informazio buletin hau osorik euskaraz egonen da eskuragarri. Informazio-mezuaren euskarazko testuaren estekatik zein NOPLOren webgunetik, argitaratutako azken buletinaren euskarazko edizioa ikusten ahalko da, bai eta hemendik aurrera bi hizkuntzetan argitaratuko diren zenbakiena ere. Neurri horrekin, hizkuntza-eskubideak errespetatzeaz gain, zabaldu egin nahi da arriskuen prebentzioaren zein laneko segurtasunaren eta osasunaren arloko informazioaren hedapena.

Nabarmendua



Laneko Segurtasun eta Osasunerako Europako Astea (Urriaren 25etik 29ra).

Urriaren 25etik 29ra bitartean, Laneko Segurtasun eta Osasunerako Europako Astea egin zen, eta, oraingoan, enpresaburuak eta langileak giharretako eta hezurretako arazoak prebenitzearen garrantziaz kontzientziatzeko izan zen.

Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren datuen arabera, giharretako eta hezurretako arazoek aldi baterako ezintasunen % 24 eta ezintasun iraunkorren % 50 eragiten dute.

✚ Informazio gehiago

Prebentzioa eskubide bat da, ez negozioa. [Laneko osasunean funtsezko pieza zara](#) kanpainaren azaroko mezua sinplea da, baina indar handikoa. Laneko segurtasuna eta osasuna babestea eskubidea da langileentzat, eta betebeharra enpresaburuentzat. Hala berresten dute Europako, estatuko eta Nafarroako araudiak eta laneko arriskuen arloko legeria espezifikoak. Aitortutako eskubiderik funtsezkoenekin ezin da merkantilizazioan ari.



(I. Uriz/ Foku)

Lan Osasunaren Zerbitzuak pandemian egindako lana, hedabideetan.

Joan den urriaren 18an, GARA egunkariak eta haren edizio digitalak, *naiz.eus*, argitaratu zuten NOPLOIko Lan Osasunaren Zerbitzuko zuzendari Estrella Extramianari egindako elkarrizketa bat. Testuak berrikusi eta ebaluatzen du hilabete hauetan pandemia lan-ingurunean koordinatzeko eta monitorizatzeko zerbitzuak egin duen lana. Horrez gain, planteatzen da ezarritako neurri batzuk baliogarriak direla eta horiekin jarraitu litekeela.

✚ Informazio gehiago

Araudia



[Laneko arriskuen prebentzioaren arloan ikerketa, garapen eta berrikuntzarako 15 bekaren deialdia.](#) (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

Agenda



Jardunaldi tekniko birtuala

DIESEL MOTORREN ISURIAK. LANEKO ESPOSIZIOA

Bartzelonan - Azaroaren 16an

- Egitaraua
- Inskripzioak

Berriak

- [Cuando la muerte espera a pie de obra.](#) El País
 - [La salud mental entre el olvido y el tabú en las empresas.](#) La Vanguardia
 - [Accidente laboral en Zurukuain: el conductor de un camión volquete, trasladado al Hospital de Estella.](#) Diario de Noticias
 - [La pandemia ha disparado el trabajo infantil en todo el mundo.](#) SEMHU
 - [El teletrabajo: aprender de las lecciones del pasado para proteger a los teletrabajadores del futuro.](#)
EU-OSHA
 - [La EU-OSHA pone en el candelero los TME crónicos para conmemorar el Día Mundial de la Artritis.](#)
EU- OSHA
 - [España contraviene la normativa de la UE al excluir a las trabajadoras del hogar de la prestación por desempleo.](#) El Salto
 - [Las jornadas muy largas son el factor laboral más letal para los trabajadores](#) Prevención Integral
 - [La economía circular: ¿qué significa para la SST?](#) EU-OSHA
-

Aldizkari digitalak




Informe Mundial sobre la Protección Social 2020-2022

OIT



Guía de medición de ruido en obras de construcción

FEPRL/FLC



Ruido: Evaluación y acondicionamiento ergonómico

INSST



ERGA bibliográfico Nº 552

INSST



ERGA legislación Nº8

INSST

Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak (NOPLOI) ez du bere gain hartzen argitaraturiko artikuluen eta albisteen edukirik; izan ere, bere horretan hartu dira kasuan-kasuan aipaturiko webgunetik, iturria aipatuz, eta ez zaie aldaketarik egin ezta ezer erantsi ere. Edozein kontsulta edo iradokizun egiteko, edo bidaltzaile honen informaziorik ez baduzu jaso nahi aurrerantzean, jar zaitez harremanetan NOPLOIrekin, helbide elektroniko honetara idatziz: ispln.ufii@navarra.es



ARGITARATZAILEA:

Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutua (Landaben poligonoa C/E-F, 31012 Irunea)

☎ 848 423 771

Argitalpenaren formatua: artxibo elektronikoa. 2021eko Azaroa.